

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

ZER DA “SER”? : MUSIKA HEZKUNTZA LGTBFOBIARI AURRE EGITEKO

Egilea: Aitor Armentia López de Ipiña

Zuzendaria: Cristina Arriaga Sanz

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA	4
2.1. LGTBIQ+ KOLEKTIBOAREN AURREKARIAK	4
2.1.1. MUGIMENDUAREN HASIERA	4
2.1.2. ESPAINIAREN IBILBIDEA	5
2.2. MUSIKA HEZKUNTZAREN AURREKARIAK	7
2.3. MUSIKA HEZKUNTZA ERALDATZAILE SOZIALTZAT	10
3. HELBURUAK	12
4. METODOLOGIA	12
5. LANAREN GARAPENA	13
5.1. TESTUINGURUA	13
5.2. ESKU-HARTZEA	14
5.2.1. LGTB KOLEKTIBOAREKIN SENTSIBILIZATZEN	14
5.2.2. MUSIKA SORTZEN	17
5.2.3. LETRA IDAZTEN	18
5.2.4. GRABATZEN	19
5.2.5. IRRATIAN EBALUATZEN: EMAITZAK JASOTZEN	20
6. ONDORIOAK	21
7. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	24
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	25

ZER DA “SER”?: MUSIKA HEZKUNTZA LGTBFBIARI AURRE EGITEKO

Aitor Armentia López de Ipiña

UPV/EHU

Askotan gertatzen da musikaren kutsu eraldatzailea ez dela lantzen ikastegietako musika saioetan, eta ikastegietan bertan, minoria ezberdinen inklusioa ez dela bermatzen. Proiektu honekin, Bilboko eskola publiko batean, historian zehar egoera desatseginak bizi behar izan dituen LGTBIQ+ kolektiboa ezagutarazi nahi izan da, musikaren bitartez aniztasunari trataera egokia emanez. 10-12 urte bitarteko 12 ikasle abesti baten sorkuntzan murgildu izan dira, horren erritmoa, instrumentala eta letra talde lanaren, esperimantazioaren, parte-hartze aktiboaren eta sormenaren bitartez eraikiz, haien errealitateak, interesak eta aurrezagutzak kontuan izanik. Azkenik, irakasleen zein parte-hartzaileen hausnarketak entzutearen bidez, lan honekin gaiarekiko sentibilizazioa, autoestimua, ikuspegi kritikoa, talde kohesioa eta sorkuntza musikalak aurrera eramateko gaitasunak garatu izan dituztela ondorioztatu egin da.

LGTBIQ+, musika hezkuntza, sormena, aniztasuna, eraldatzaile soziala

Ocurre a menudo que el matiz transformador de la música no se cultiva en las sesiones musicales de los centros, y que en los propios centros, no se garantiza la inclusión de las diferentes minorías. Con este proyecto, en una escuela pública de Bilbao, se ha querido dar a conocer al colectivo LGTBIQ+, el cual ha tenido que vivir situaciones desagradables a lo largo de la historia, dando un tratamiento adecuado a la diversidad a través de la música. 12 alumnos de 10 a 12 años se han volcado en la creación de una canción, construyendo su ritmo, instrumental y letra a través del trabajo en grupo, la experimentación, la participación activa y la creatividad, teniendo en cuenta sus realidades, intereses y conocimientos previos. Por último, a través de la escucha de las reflexiones tanto del profesorado como de los participantes, se ha llegado a la conclusión de que con este trabajo han desarrollado capacidades de sensibilización con el tema, autoestima, visión crítica, cohesión grupal y desarrollo de creaciones musicales.

LGTBIQ+, educación musical, creatividad, diversidad, transformador social

Often, the transformative tone of music, as well as the inclusion of minority students, is not part of a school's curriculum. With this project, in a state school in Bilbao, it's been aimed to raise awareness around the LGBTQI+ community, a group that has been targeted, discriminated and hated throughout history, to provide equal treatment and nourishment to its diversity through music. 12 students, ages 10-12, years were asked to create a song, looking at rhythm, instrumentation, and lyrics with their group. They were encouraged to work on their experimentation, active participation, and creativity, taking into account their realities, interests, and previous knowledge. The teachers and participants both concluded that this project had allowed the students to develop skills of awareness, self-esteem, critical vision, group cohesion, and development of music creation.

LGTBIQ+, music education, creativity, diversity, social transformator

1. SARRERA

Gogoratzen dut eskolan nengoenean ez zela gehiegi jorratu LGTBIQ+ kolektiboaren gaia. Ni, pertsona bisexuala izanik, ez nekien aukera hori existitzen zenik, eta nire identitate sexuala ezkutuan geratu zen, bai nire inguruko jendearentzat, bai niretzat. Eta hau ez zait niri bakarrik gertatu, kolektibo honen parte diren ezagun gehienek antzeko prozesua bizi izan zuten haien eskola garaian. Beraz, nolabait, urteetan zehar, eskolak ez gintuela babestu ondorioztatu dut.

Hau kontuan hartuta, nire helburua lan honekin nahiko argi daukat: Eskolak LGTBIQ+ ikuspegia izatea, gutxienez, nik landuko dudan esparruan, hala nola, musika hezkuntzan. Honen beharra ukazina da, minoria hauek sufrimendua aurreztu dezaten, besteak beste: indarkeria eta agresioak ekiditeko; tolerantzia bermatzeko; kolektiboko umeei ulertzeko ez direla arraroak, eta haiek bezalako jende gehiago dagoela bai eskolan bai eskolaz kanpo, umeei ulertu ahal izateko zer den sentitzen duten hori, eta errurik ez sentitzeko diren pertsonak izateagatik. Eta honekin batera, gainontzeko klasekideek ere uler ditzakete jendartearen parte diren errealitate ezberdinak, hauekiko ahalik eta elkarbizitza osasuntsuena eratzeko.

Zergatik musika hezkuntza gai hau lantzeko? Esango nuke musikak garrantzi handia izan duela nire bizitzan zehar, bai entzutea, bai sortzea. Musikaren bitartez gauza asko transmititu daitezkeela eta edonork uler dezakeen lengoia dela uste dut, nahiz eta bakoitzak bere interpretazio pertsonala egin dezakeen. Musikaren sorkuntzak nire bizitzan garrantzi handia izan du. Oso erabilgarria izan da nire esperientziak eta bizipenak partekatu ahal izateko, eta nolabait, askatasuna aurkitzeko, sentimenduak askatzeko. Gainera, askotan erabili izan da aldarrikapen sozialak egiteko. Abesti gehienek letrik, bideoek zein kontzeptuek mezuak transmititzen dituzte, eta mezu horiek ikuspegi ideologiko bat izan dezakete. Beraz, zein da musika mezu iraultzaile eta positibo zabaltzaile bezala ez erabiltzearen aitzakia, honen bidez babestua egon ez den kolektibo batek eskolaren beroa sentitu ahal badu?

Gratu Amaierako Lan honetan, Bilboko kanpoaldean dagoen eskola publiko batean egindako esku-hartzea aurkeztuko dut. Esku-hartze horretan, ikasleak, LGTBIQ+ kolektiboak hobeto ezagutu ondoren, abesti baten sorkuntzan murgildu izan dira, abestia goitik behera eraikiz. Musikaren bidez eta era kooperatibo batean aniztasunarekiko errespetua aldarrikatzeko gai izan dira, haien errealitateak eta interesak alde batera utzi barik.

2. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

2.1. LGTBIQ+ KOLEKTIBOAREN AURREKARIAK

Gaur egungo jendartean pertsona askok diskriminazioa jasotzen dute, besteak beste, jatorriagatik, adinagatik, generoagatik, maila sozioekonomikoagatik, aspektu fisikoagatik, edo orientazio sexualagatik. Eta diskriminazio horiek murrizteko tresna oso baliagarria izan daiteke hezkuntza, azken finean, etorkizuneko mundua osatuko duten pertsonak hezten ari direlako eskoletan. Kasu honetan, lan honetan diskriminazio ezberdinak sortzen dituzten desabantailak irakurri ahalko diren arren, generoarekin eta orientazio sexualarekin erlazionatutakoak azpimarratu nahiko nituzke, hau da, LGTBIQ+¹ kolektiboko kideek jasotzen dituztenak. Horrek ez du esan nahi LGTBIQ+ kolektiboa jorratzerakoan ez ditugunik beste errealitateak kontuan izan behar. Gainera, diskriminazioaren aurka jarduteko, ardatza ezin da gizonen, zuriaren eta maila sozioekonomiko altuko zein erdiko pertsonengan jarri (Rupp, 2021).

2.1.1. MUGIMENDUAREN HASIERA

Historian zehar LGTBIQ+ kolektiboak jasan izan duen diskriminazioa eta bazterketa ez da txikia izan, eta nahiz eta kasu askotan kolektiboak ez duen edo ezin izan duen jazarpen horren aurkako mugimendurik egin, ez zen berdina gertatu Stonewalleko istiluetan, non kolektiboak indarrak batu zituen bidegabekeria hauen aurka eginez. New Yorkeko *Stonewall Inn* tabernan gertatu zen dena, non LGTBIQ+ kolektiboko kideek haien orientazio sexuala zein genero identitatea era aske batean adierazi zezaketen, jendartearen begirada heteronormatibotik at. Begirada heteronormatibo horren erregimenak eraiki izan du kolektiboko pertsonen desberdintzapen desorekatsua (Bonet, 2016).

Halere, esan beharra dago kolektiboko pertsona marjinatuenak batzen zirela honelako tabernetan, besteak beste, pertsona arrazalizuak, maila sozioekonomiko baxukoak eta

¹ LGTBIQ+ siglek *Lesbian* (emakumeak gustuko dituen emakumea), *Gay* (gizonak gustuko dituen gizona), *Trans* (jaiotzerakoan jendarteak ezarritako generoarekin bat egiten ez duen pertsona), *Bisexual* (bere generoa dena delakoa, genero bat baino gehiagoko pertsonak, gizonak, emakumeak edo genero ez binarioko pertsonak, gustuko dituenak), *Intersexual* (genital bakarrarekin jaio ez den pertsona), *Queer* (jendarteak beren genero identitateagatik, orientazio sexualagatik edo adierazpenagatik baztertzen dituzten pertsonak) kolektiboei egiten die erreferentzia. Azkenik, “+” sinboloak, aurreko azpitaldeen barruan ez dauden beste minoria batzuei egiten die erreferentzia.

pertsona transak. Gau askotan poliziak minoria hauek tabernatik aterarazi egiten zituen, kartzelatzeak, jipoiak eta antzeko ekintza bortitzak aurrera eramaten, kolektiboko kideek ihes egiten saiatzen zuten bitartean. Baina 1969ko ekainaren 28an ez zen betikoa gertatu, gau horretan, kolektiboak errepresio polizialaren aurka egin zuen. Gertaera historiko hori eta hurrengo egunetan, askatasunaren aldeko mugimenduak piztu ziren, poliziaren aurka eginez eta LGTBIQ+ kolektiboaren aldeko esaldiak errepikatuz (Carter, 2010; Duberman, 2013, Bonet-ek aipatua, 2016). Izan ere, gaur egun, ekainaren 28an ospatzen da LGTBIQ+ kolektiboaren harrotasun eguna. Egun honetan egiten diren manifestazioek estrategia kritikoak eta irudikapeneko, interpretazioko eta komunikazioko patroi sozial berrien sorkuntzaren multzoa osatzen dute (Bellucci eta Rapisardi, 1999, Settannik aipatua, 2013).

Aurrera pausu asko eman dira goian aipatutako istilu hauei esker, batez ere aniztasunaren ikusgaitasunean, eta urte askoz borroka egin eta gero, zenbait herrialdeetan (aberatsenetan batez ere) beste zenbait gauza lortu izan ditu kolektiboak; besteak beste: berdintasunezko ezkontzak, eredu familiar ezberdinak ezagutzea, genero identitatea diskriminazio arrazoi posible bezala seinalatzea, bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egin ahal izatea (betiere inor ez kaltetu gabe), maskulinitate antipatriarkalak eraikitzea, HIES-aren aurkako aktibismoa bultzatzea, eta jarrera heteronormatiboen salaketa agenda kultural eta politikoaren aurrean ezartzea (Bonet, 2016).

Baina aurrerapen hauek ez dira era berean eman mundu osoan zehar, bide asko dago oraindik ibiltzeko, batez ere garapenean dauden herrialdeetan. Nazioarteko Lesbianen, Gay-en, Bisexualen, Transen eta Intersexualen Erakundeak (ILGA) egindako ikerketa baten arabera, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) partaide diren 193 herrialdetik, 70 batek ez ditu praktika heterosexualetatik at daudenak legalki onartzen (Carroll eta Itaborahy, 2015, Bonetek aipatua, 2016).

2.1.2. ESPAINIAREN IBILBIDEA

Espainian, aurrera pauso handiak eman direla esan genezake, hein batean, legeak aldatzen joan direlako jendartearen ikuspuntua aldatzearekin batera. Izan ere, Carranza Lópezen (2011) aburuz, herrialde batean indarrean dauden legeak biztanleriaren pentsatzeko eraren, kulturaren eta ohituren isla dira. Francisco Francoren diktaduraren garaian, 1956. urtean, homosexualak sartu zituzten “Ley de Vagos y Maleantes (1933)” legearen barruan, besteak beste, arloteekin, toxikomanoekin, proxenetekin eta atzerritarrekin batera, pertsona

hauek jazarri ahal izateko. Ondoren, lege hau ordezkatzeko, “Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social (Ley 16/1970)” sortu zen 1970. urtean, kasu honetan, eta arestian aipatutako legean ez bezala, homosexualak epaitu orde, ekintza homosexualak epaitzen zituzten; eta lege honen helburua ez zen zigortzea, baizik eta jarrera hauek *bideratzea* edo *sendatzea*. Bestalde, homosexualei zigor-kodeko 431. artikuluko “Eskandalu Publikoko Delitu” agatik ere kondenatzen zitzairen. Honek harreman zuzena zeukan Eliza Katolikoarekin, haiek baitziren jarrera egokiak eta desegokiak zirenak erabakitzen zituztenak. Haien usteetan, homosexualitatea bekatua zen, Bibliaren baloreak eta morala errespetatzen ez zituen jarrera *antinaturala* izanik (Carranza López, 2011).

Franco hil eta bost urte beranduago, 1979ko urtarrilaren 11ko Lege Dekretuan ekintza homosexualak ezabatu zituzten “Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social (Ley 16/1970)” legetik. Hurrengo urtean, homosexualitatea legalizatu zen Espainian. 1984. urtean pertsona transeko operazioak despenalizatu ziren. 1987. urtean *Eskandalu Publikoko* legea indargabetu zen. Honekin batera, urte berdinean, pertsona transek haien izena eta sexua aldatzeko aukera zuten haien NAN-ean, beti eta ebakuntza genitaletik pasa eta gero. 1995. urtean, aurrera pausu erraldoia eman zen zigor-kode berria onartzerakoan, non pertsona diskriminatuak babesten ziren, besteak beste, haien orientazio sexualagatik. Hamar urte ondoren, uztailaren 1eko 13/2005 Legeari esker, homosexualek ezkontzeko eskubidea eskuratu zuten, bikote heterosexual batek zituen eskubide zein betebeharrarekin, adopzioaren aukera barne. Martxoaren 15eko 3/2007 Legean, Espainiako herritartasuna eta 18 urte baino gehiago zituzten biztanleek haien sexu legala Erregistro Zibilean aldatzeko aukera zutela adierazi zen, beti eta genero-disforiaren diagnostikoa aurretik izanda eta gutxienez bi urtez nahitaezko hormonazioa jaso eta gero. Hau da, aurrera pausua izan zen pertsona transekoak, baina hala ere, kolektibo honen despatologizazioa bermatzea beharrezkoa zen, beraien duintasuna zein eskubideak urratuak ez izateko.

Despatologizar. Significa desnaturalizar la medicalización y biologización de las identidades de género y los comportamientos sexuales, reconocer la pluralidad existente de géneros y sexualidades [...], combatir el poder biomédico como discurso hegemónico sobre los cuerpos y las sexualidades, cuestionar los prejuicios médicos y la legitimidad científica de los pretendidos diagnósticos (“trastorno”, “histeria”) y terapias, insertando los discursos patologizantes en el ámbito de relaciones de poder que delimitan la frontera entre lo que se considera “normal” y lo que se considera “patológico” (Bonet, 2016, 10. or.).

Duela urte gutxi batzuk, 2018an Munduko Osasun Erakundeak (MOE), pertsona transak nahaste mentalen zerrendatik ezabatu zituen. Honen harira, esan beharra dago pasaden 2023ko martxoaren 2an, indarrean jarri zela “Pertsona transen berdintasun errealerako eta eraginkorrerako eta pertsona LGTBien eskubideen ziurtasunerako 4/2023 Legea”², “Trans Legea” bezala ezagunagoa. Lege honi esker, 16 urte baino gehiagoko pertsona transek haien genero identitatea autodeterminatzeko aukera dute Erregistro Zibilean, inolako prozesu judizial edo medikurik zeharkatu behar gabe, 4 hilabeteko epearen barruan, askoz jota. 14-16 urte tarteko gazteen kasuan, haiek aurkeztu ahalko dute eskaera, haien gurasoen edo tutore legalaren laguntzarekin. 12-14 urte tartean, moldaketa baimen judizial batekin egin ahalko da. Eta azkenik, 12 urte baino gutxiago duten pertsonak ezingo dute haien sexua aldatu, baina bai haien izena, haien izenaren erabilera justifikatu behar gabe.

Bestalde, garrantzitsua izan daiteke, etorkizuneko irakasle bezala, ikasleen errealitateak kontuan hartzea ikasleek haien askatasuna, autodeterminazioa eta autoezagutza eskuratzeko, “irakasleriak ikasleriak beren burua ezagutzeko prozesua ahalbideratu edo oztopa dezake” (Navarro Suanes, 2009, 7. or.)³. Eta nahiz eta ikasle batek LGTBIQ+ kolektiboaren ezagutzaren beharra duela antzematea zailagoa izan, ezin da aitzakia izan guretzat, Ricard Huertaren (2021) hitzetan “Anular estas realidades, invisibilizarlas o desdeñarlas supone también eliminar del ámbito educativo un problema que afecta a millones de personas” (54. or.). Baina kolektibo honen inguruko trataera ez litzateke beti era zuzen batean egin beharko, irakasgai guztietako curriculum ezkutuan lekua izanda baizik; egunerokotasunean diskriminazio honen aurka egiteko eta ikasleentzat espazio segurua sortzeko, non konfiantzaz jardun ahalko duten (Ricard Huerta, 2017, Mérida Jiménezek aipatua, 2018). Honi lotuta, irailaren 6ko askatasun sexualaren ziurtasun integralerako 10/2022 Lege Organikoa indarrean jarri zen; honi esker, heziketa sexualaren, genero berdintasunaren eta afektibo-sexualaren edukiak integratu beharko dira estatu osoko eskoletan.

2.2. MUSIKA HEZKUNTZAREN AURREKARIAK

Tradizioz, musikak presentzia txikia izan du hezkuntza-sisteman, Espainian behintzat. 1990. urtean, LOGSE aldarrikatu zen arte, Espainiako hezkuntza-sisteman musikaren

² Ley 4/2023, de 28 de febrero, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI.

³ “el profesorado puede favorecer u obstaculizar el proceso por el cual el alumnado puede encontrarse a sí mismo” (Navarro Suanes, 2009, p. 7)

presentzia xumea zen, ia lekurik gabea (Lorenzo, 2003). Gainera, irakasgai honen helburuak edo zereginak musika mota konkretu batzuekin erlazionatu izan dira, besteak beste, Europako musika klasikoarekin, eta gure kulturako haurtzaroko abestiekin, musika mota hauek izanik txalotu beharreko bakarrak edo ikasleek musika tresnak jotzerakoan erreferente bezala izaten zituztenak (Alcázar, 2010).

Hala ere, musika hezkuntzak historian zehar hainbat aldaketa edo trantsizio izan dituela jakin dezakegu, kasu honetan, Gillanders eta Candisano Meraren *Métodos y modelos en educación musical* (2011) artikuluari esker.

1930etik 1940ra musika irakaskuntzaren sinplifikazioa bilatzen zen Europan, Tonic Sof-Fa metodoa Ingalaterran eta Maurice Chevais-en ideiak Frantzian ezartzen ziren bitartean. 1940tik-1950era, metodo aktiboen garaian, Dalcroze, Willems, Martenot, Mursell, Orff eta Kodály aipatzen dira. Planteatu zituzten metodo edo proposamen aktiboek indar handia hartu zuten heziketa tradizionaletik at zeuden proposamenetan. Hala ere, nahiz eta pedagogo-musikariek planteatutako mugimendu berri honek babes handia izan nazioarteko mailan, musika hezkuntzan indarrean jartzea ez zen prozesu azkarra izan; “Y ésta es una característica constante en la pedagogía musical, la falta de agilidad y rapidez para introducir los avances significativos y meditados que tienen lugar en otros ámbitos de la educación” (Gillanders eta Candisano Mera, 2011, or. 64).

1950etik 1960ra, amaierako produktu bat lortzeko helburuarekin musika instrumentuak era kolektibo batean erabiltzen ziren. 1960tik 1980ra ikasleen sormena bilatzen saiatzen zen hezkuntza musikala, garai horretako konposizioek jasandako berrikuntzetatik abiatuta. 70. hamarkadako beste proposamen berritzailea François Delalandek ekarri zuen, non musika umeentzako jolasa bezala planteatu zuen. Umeek zaratan oinarritutako musika egiten dute, gainera kontuan izan behar da musika ez dela beti erritmoa eta melodia, eta ez dela beharrezkoa musikaren alderdi teorikoa jakitea musikaria izateko (Delalande, 1976, Alcázarrek aipatua, 2010). Honen bidez, adierazpena eta sormena bultzatu ziren, esplorazioa eta erabili zitezkeen soinu-materialak handituz. Horietan oinarritu ziren hurrengo hamarkadetan sortutako korrante musiko-pedagogikoen ideiak, Self, Paynter, Schafer edo Dennis-en eskutik (Hemsey de Gaínzak, 2014).

1980tik 1990era, irakaslearen klase emateko era pertsonala indartzea bilatu zen, irakasleek haien proposamen kurrikularrak sortzen zituzten metodo bakoitzetik gehien

gustatzen zitzaizkien zatiak hartuz (Oriol de Alarcón, 2005, Gillandersek eta Candisano Merak aipatua, 2011). 1990etik 2010era eredu berriak jarri ziren mahai gainean, zeintzuk testuinguru zehatz batean garatzen ziren jokaerak eta materialak bezala definitu zituen Hemsy de Gaínzak (2000), Gillandersek eta Candisano Merak aipatua (2011).

Europako musika hezkuntzaren berrikuntza historikoak behin errepasatuta, ikus daiteke alde batetik, hainbat proposamen plazaratu edo ezagutarazi direla musika hezkuntzaren inguruan, eta bestetik, aukera ezberdinak dituela musika hezkuntzako irakasleak saioak aurrera eramateko orduan. Izan ere, irakasleak berak bere metodo edo teknika egokienaren inguruan hausnartu beharko du, bere irakaskuntza prozesuaren estiloarekin bat egin dezakeen norabide metodologiko eraginkorra aurkitu ahal izateko (Gumm, 2003, Gillandersek eta Candisano Merak aipatua, 2011).

Baina estilo metodologiko ezberdinez aparte, Euskadin Heziberri daukagu, eskolako jarduerak arautzen dituen. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskinean, azter daiteke zeintzuk diren Lehen Hezkuntzan Musika Hezkuntzari dagozkion edukiak eta etapako helburuak. Etapako helburuei dagozkienek: musikak ikasleen komunikazioa, sentimenduak, adierazteko gaitasuna, pentsamendu kritikoa, autokonfiantza, sormena, ekimena eta irudimena bultzatzen dituela uler daiteke, eta horri esker, prozedurak planifikatzen, artearen garrantzia historian ulertzen, sortutako ekoizpenen lotura ingurune fisiko eta sozialarekin erlazionatzen, talde lanean aritzen, ardura hartzen, kultura-ondarea ezagutzen eta ekoizpenak partekatzen ikas daiteke. Edukiak, besteak beste, entzumena garatzeko, (soinu-iturriak ikertu, soinuaren altuera eta iraupera bereizten ikasi), arreta mantentzeko (isiltasunaren garrantzia ulertzen ikasi), Euskal eta kanpoko kultura musikala ezagutzeko, soinuarekin arakatzeko, abesteko, ahotsa zaintzen ikasteko, partitura errazak idazten eta irakurtzen ikasteko, erritmoa, mugimendua eta banakako zein taldeko koordinazioa lantzeko, inprobisatzen ikasteko, konfiantza lortzeko eta musikaz disfrutatzen ikasteko jarduerak egitea izango lirateke.

Ondorioztatu daitekeenez, musika hezkuntzak, gaur egun, ez dio musikari alderdi teorikoaren monopolioa ematen, praktikotasunarekin denbora edo espazioa partekatzen baitituelako. Hala ere, musika ez litzateke soilik gauza teoriko edo praktikoa bezala aztertu behar, honek duen boterea pertsonengan askoz handiagoa delako, eta honek eragin dezakeena zabalagoa delako, Fernández Jiménezek eta Jorquera Jaramillok (2017) aipatutako Woodford-en (2005) hitzetan “Musika klaseetan ezarri den “musika egitearen” dinamikarekin, alde batera uzten ari da ikasleriak garatu dezakeen pentsamendu sortzailearen

eta musika ezagutza ekintzailearen jarrera, inguratzen gaituen testuinguruaren beharrei erantzuna emateko. (102. or.)”⁴

Musika Hezkuntzaren helburu nagusia musika maitatzen, ulertzen, ezagutzen, interpretatzen eta haren beharra izaten ikastea izan beharko litzateke (Sánchez Curnill, 1998). Horretarako, sormenaren lanketak protagonismoa izan beharko luke gaur egun, musika saioak denentzat baliagarriak izateko eta hezkuntza demokratiko bat sustatzeko, non musika era “natural, praktiko, zuzen eta eskuragarri” batean irakasten den. Gainera, musika onuragarria da jendearentzat ondo irakatsita, transmitituta eta partekatuta dagoenean, eta horregatik da hain garrantzitsua horren ikaskuntza arrakastatsua eragin dezakeen kalitatezko pedagogia berritzaile bat erabiltzea. Horretarako, ezinbestekoa da musika hezkuntzako klaseetan gaur egungo jendartearen egoeren inguruan eta ikasleen beharren eta espektatiben inguruan hitz egitea eta hau kontuan izanda jardutea. (Hemsey de Gainza, 2014).

Ezin dugu bukatu gaur egungo musika hezkuntzan teknologiak duen garrantzia azpimarratu gabe. Berez, teknologia ikasleentzako hurbileko baliabidea da eta ikaskuntza erraztu ahal du, eta ikasleen arteko interakzioa eta baloreen ulermena ere. Baliabide teknologikoen erabilerak musika jo eta sortzeko eta diziplinarteko edukiak inplementatzeko aukera gehiago eman ahal ditu, eta geletan irakasten dena eta ikasleen inguruko gustu musikalak hurbiltzen lagundu ahal du (Romero-Cardona, 2004).

2.3. MUSIKA HEZKUNTZA ERALDATZAILE SOZIALTZAT

LGTBIQ+ kolektiboak jasan behar duen egoera sozial desatsegina bideratzeko, musika hezkuntza aproposa izan daiteke. Alde batetik, musika komunikatzeko eta kultura transmititzeko tresna baliagarria delako (Moliner, et al.; 2021), eta bestetik, gizabanakoaren zein taldeko identitatearen alderdietariko bat delako (Green, 2011, Moliner et al.-k aipatuta, 2022). Hori dela eta, ondo erabili behar dugun baliabidea da, gizabanako guztiak errespetatu eta kontuan hartuz; Moliner et al. (2022) aipatutako Fernández Enguitaren (2001) hitzetan “[...] garrantzitsua da eskolako kultura jendarteko talde menderatzaileen kultura eksklusiboa ez bihurtzea bermatzea” (5. or.)⁵. Orokorrean, gehiengo batek egiten duena delako erreferentziatzaile eta “normaltzat” edo “egokitzaile” hartzen dena, eta hori eskola esparruan

⁴ “Con esta dinámica bien instaurada en las clases de música de "hacer música" se está dejando de lado que el alumnado adopte una postura generando pensamiento y conocimiento musical en acción que dé respuesta a las necesidades del contexto social que nos rodea” (Woodford, 2005, p. 102)

⁵ “[...] es importante garantizar que la cultura escolar no se convierta exclusivamente en la cultura de los grupos dominantes en la sociedad”. (Fernández Enguita, 2001; citado por Moliner et al., 2022, p. 5).

arriskutsua izan daiteke. Horretarako, Díaz Mohedok (2005) aitortu zuen bezala, irakasleen formakuntzak konpromiso etikoa izan behar du, haien etorkizuneko lanpostuan neutralismoak ez duela tokirik jakin dezaten, ikasgelan esaten dena esaten dela transzendentzia edukiko duelako. Honekin batera, ikasleek haien nortasuna eraikitzean elementu garrantzitsu bezala aurki dezakete musika (Cabedo, 2014, Moliner et al.-k aipatuta, 2022).

Artista edo musikari LGTBIQ+-ei buruz pentsatzen dugunean, baliteke izen asko ez etortzea gure burura; alde batetik, *playlist*⁶ famatuenetan (Rey Gaona, 2021) ez dagoelako errepresentazio handirik, eta bestetik, askotan, famatuak diren artistek ezin izaten dutelako haien orientazio sexualari buruz era irekian hitz egin. Gazteentzat oso garrantzitsua da telebista, irratia ala sare sozialak pizten dituztenean haiek bezalakoak zein haiek bezalakoak ez diren pertsonen errepresentazioak aurkitu ahal izatea, edonorentzat baliagarria delako aniztasuna aurkitzea horrelako espazioetan, aniztasuna errespetatzeko, aniztasunaren existentzia ezagutzea lagungarria izan daitekeelako. Sebak 2009an argitaratutako *Gay and Lesbian Role Models* liburuan, kolektiboko kide batzuen lekukotasunak irakur daitezke, besteak beste Eric Alvarezena, non berak txikitzen ez zuela gay eredurik izan, eta horrek eragin zuela bere sentimenduak isilpean luzez gorde behar izatea aitortu zuen. Umeek ez dutenean haiek bezalakoak den inor ez ikusten, haien garapena geldiarazi daiteke, eta eredu egoki bat aurkitzea izan daiteke hori ekiditeko moduetariko bat (Alvarezen lekukotasuna, Sebak aipatua, 2009). Izan ere, influentzia duten pertsonen haien orientazio sexualaren edo genero identitatearen inguruan era irekian hitz egiten dutenean, jendarteari laguntzen diote aniztasunaren trataera egokiago bat egiten, baliagarria izan daitekeelako haien eguneroko bizitzan ikusten dituzten pertsonak ulertzeko eta errespetatzeko. Eta garrantzitsuena, LGTBIQ+ kolektiboko gazteek era errazago batean haien sentimenduak uler eta onar ditzaten.

Ha hecho falta que [...] cantantes de gran fama como Ricky Martin o más recientemente Pablo Alborán, “salieran del armario”, para que la homosexualidad haya empezado a estar algo más normalizada. Sin embargo, todavía demasiadas personas sufren lo increíble para decir a los demás o a sí mismos, que se sienten atraídos por el mismo sexo o por ambos o que no se sienten identificados con el cuerpo que tienen, mientras la comunidad científica y gran parte de la población se siguen preguntando de manera estéril y absurda, por la causa de la homosexualidad o la transexualidad. (Ballester-Arnal, 2020, 10. or.)

⁶ *Playlist*: erreproduzio- edo abesti-zerrenda.

Honen harira, esan beharra dago pixkanaka pixkanaka aurrera pausuak ematen ari garela munduko herrialde aurrerakoienetan, adibidez, 2023ko urtarrilaren 24an, musika entzuteko *Spotify* plataformak, *GLOW* (distira, euskaraz) proiektua kaleratu zuen, non LGTBIQ+ kolektiboko artistek sortutako edukia batzen den. Honen helburua LGTBIQ+ sortzaileak altxatzea, plataforma barruan zein kanpoan izango litzateke (Spotify, 2023, Stephen Daw-ek aipatua Billboard-en, 2023). Honelako plataforma baten existentziak mesede handia egin diezaioke gaur egungo jendarteari, “[...] *queer* ikuspegiak kultura menderatzaileari kritika egiteko eta genero identitatearen inposizio eta transmisio kulturala ekiditeko gaitasuna duelako” (Lopez Castilla, 2013, 262. or.).⁷

Laburbilduz, LGTBIQ+ kolektiboak duela urte batzuk baino eskubide gehiago ditu Espainian eta beste herrialde batzuetan, eta gaur egungo jendartean gero eta errespetu handiagoa jasotzen dute, baina gauzak hobetu daitezke oraindik ere. Gainera, lehenago aipatu den bezala, musikak izaera soziala izan dezake, bere trataeraren arabera, noski. Hori dela eta, gaur egungo musika hezkuntzan ezarri daitekeen proposamen didaktiko baten inplementazioa aztertuko da lan honetan, non LGTBIQ+ kolektiboaren gaia landuko den.

3. HELBURUAK

Lan honek bi helburu nagusi ditu:

Lehenik eta behin, musika hezkuntzako saioak eragile sozialtzat erabiltzearen bitartez LGTBIQ+ kolektiboaren ikuspuntua lantzea, ikasleen sormena, parte-hartze aktiboa, esperimentazioa eta talde lana sustatuz.

Bigarrenik, egindako esku-hartzearen saioetan gertatutakoa arretaz behatzea, horren inguruan hausnartzea eta azkenik, ondorioak ateratzea, ikasleen bizipenak eta proiektuan zehar ikasitakoa ardatz bezala edukiz.

4. METODOLOGIA

Lanaren marko teorikoa garatzeko, “LGTB”, “Musika hezkuntza” eta “Ikuspuntu soziala hezkuntzan” izan ziren bilatutako gako nabarmenenak, konbinazio desberdinak erabiliz. Artikuluak eta liburuetako kapituluak irakurri ziren, batzuk euskaraz, batzuk

⁷ “[...] visión queer, capaz de hacer crítica de la cultura dominante y sus vehículos de imposición y transmisión cultural con relación a la identidad de género.” (Lopez Castillo, 2013, p. 262)

ingelesez eta gehienak gaztelaniaz. Gai honen inguruan ez zegoen informazio askorik, baina marko teorikoa garatzeko informazio garrantzitsua eta elkar erlazionatzekoa aurkitu zen.

Bilaketa bibliografikoa eta marko teorikoa egin ondoren, esku-hartze baten diseinua egitera ekin nion, non LGTBIQ+ kolektiboaren gaia sorkuntza musikalaren bitartez landuko zen, geroago eskola batean praktikotasunera eramateko. Hurrengo puntuan eskolaren testuingurua eta egindako esku-hartzearen ezaugarri nagusiak deskribatuko dira.

Bukatzeko, bizitakoa kontatuko da eta proiektuan parte hartu duten irakasleen pertzepzioak jasoko dira egindako elkarrizketa baten bidez. Ikasleei ere, ahotsa emango zaie irрати saio batean jasotzeko bizi izan dutena. Era honetan, lana ikuspegi kualitatibo batetik aztertu ahal izango da. Ikerketa-ekintza metodologian oinarria hartuta (Carr eta Kemmis, 1988) saio bakoitza amaitzerakoan, irakasleak eta biok bilerak izan genituen, gertatutakoaren inguruan hausnartzeko eta beharrezkoa izango balitz, planifikazioan egin beharreko aldaketak egiteko.

5. LANAREN GARAPENA

5.1. TESTUINGURUA

Lan honen garapena Bilboko kanpoaldean dagoen Iturrigorri/Peñasal auzoko *José Orbegozo Iturrigorri* eskola publikoan burutu zen, 2023ko otsaila eta apirila artean. Eskolaren kokapenari dagokionez, ikasle gehienen familiak maila sozioekonomiko baxukoak ziren, eta gehienak, etorkinak, familia etorkinekoak edo ijitoak. Bestalde, eskola honen berezitasunetarikoa bat, ikasleriaren tamaina txikia zen, eskola osoan 60 bat ikasle egongo ziren askoz jota, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza batera. Hori zela eta, eskola zikloka (1., 2. eta 3. zikloak) antolatuta zegoen, klase bakoitzean 6-12 ikasle artean izanik. Irakasle kantitatea ere ez zen oso altua, eta nahiko giro oneko taldea zen, proposamen berrien aldekoa gutxienez.

Diseinatutako esku-hartzea 3. zikloko ikasleekin egin zen, 10-12 urteko 12 umeekin. Prestatutakoa aurrera eramateko musikako eta gaztelaniako saioak erabili ziren, musikako bost eta gaztelaniako lau, bereziki, 9 ordu eta erdiko proposamena izanik (ikus 1. eranskinean planifikatutako daten taula). Ikasleen euskara maila ez zen oso altua, eskolaz kanpo ez zutelako hizkuntza ez erabiltzen ez entzuten. Gainera, Euskadira heldu berri ziren 2

ikasle zeudenez, proiektua gaztelaniaz egitea erabaki zen, erabilitako hizkuntza gaztelania izanda, denek izango zutelako parte hartzeko aukera.

Bestalde, ikasleen funtzionatzeko era nahiko dinamikoa zen, haien interesetatik abiatutako jarduerak eginez eta batez ere haien iritzia, aurrezagutzak eta interesak kontuan hartuz, haien motibazioa handiagoa izateko. Haiek erabakitzen zuten askotan zer zen landu nahi zutena -zikloko edukien aukeren artean- eta gustatzen zitzaizkien gauzetara gerturatzen saiatzen zen tutorea. Musika saioetan, berriz, gehienetan irakasleak ekarritako proposamena egiten zen, haien interesak ere kontuan hartuz.

5.2. ESKU-HARTZEA

Arestian argitu den bezala, historikoki, LGTBIQ+ kolektiboaren ikuspuntuak espazio gutxi hartu du eskolan. Hori dela eta, honen inguruan jarduera bat egitea aproposa ikusi nuen, eta musikarekin erlazionatzea ere bai, honi eman ahal zaion ikuspuntu sozialagatik. Honen helburua ikasleek LGTBIQ+ kolektiboaren inguruan hausnartu eta informazioa bereganatzea eta hau babesten duen abesti bat sortzea izango litzateke.

Esku-hartzea bost alderdietan banandu nuen, batzuk gaztelaniako klaseetan landuko zirenak besteak musika klasean landuko ziren bitartean: sentsibilizazio saioa, abestiaren instrumentala sortzeko saioak, letra idazteko saioak, grabaketa saioa eta azkenik, ebaluazio gisa, irrati saioa.

5.2.1. LGTB KOLEKTIBOAREKIN SENTSIBILIZATZEN

Saio honen helburua 3. zikloko ikasleekin LGTB kolektiboaren inguruan solasaldi bat bultzatzea izan zen, gaiarekiko ikasleen tolerantzia handitzeko, informazioa emateko eta hausnarketa sustatzeko. Gaztelaniako saio bat erabili genuen honetarako, ordu bat eta erdikoa.

Esan beharra dago proposamenarekin hasi baino lehen, LGTBIQ+ kolektiboaren inguruko ikasleen ezagutza maila ezagutu zela pixkanaka pixkanaka. Ni kolektiboko pertsona izanik, erabaki nuen nire errealitatea ezagutzera ematea aukera ona izan litzatekeela, naturaltasunez eta beldurrik gabe gaiaren inguruan hitz egiteak honen normalizazioari laguntzen diolako. Beraz, lehenengo egunean, 3. zikloko ikasleek nire bikotekidearen inguruan galdetu zidatenean, ez nuela ez mutil-lagunik ez neska-lagunik esan nuen. Hori

entzun zutenean nire orientazio sexualaren inguruan galdetu zidaten, eta bisexualitatearen inguruan hitz egin nien normaltasun osoz. Beste zikloko ikasle batzuek nire belarritakoan inguruan galdetu zidaten, eta belarritakoak ez direla ez mutilenak ez neskenak esan nien. Hurrengo egunetan galdera gehiago egin zizkidaten, baina betiere errespetu osoz eta interesarekin. Horren bidez ikusi zen ikasleek interesa zutela gai honen inguruan eta errespetuarekin jasotzen zutela.

Honekin batera, haien interes musikalak zeintzuk ziren galdetzeko aprobeixatu ziren momentu informalak (errekreo orduak eta pasilloetako elkarrizketak, adibidez). Gehien bat Espainiar zein Hego Amerikako panorama musikal urbanoko abeslari gizonak izendatzen zituzten: Morad, Anuel AA, Bad Bunny, Beny Jr, Quevedo, Mora, Bizarrap, Rauw Alejandro, Omar Montes, Feid eta Duki, besteak beste. Abeslari hauek, momentu horretan *Spotify*eko Espainiako arrakasta zerrendetan agertzen ziren abeslariak ziren. Emakume batzuk ere aipatu zituzten: Rosalía, Karol G, Shakira eta Blackpink taldea.

Sentsibilizazio saioarekin hasteko, lehenik eta behin, ikasleen aurrezagutzak ezagutzen saiatu nintzen galdera batzuk luzatzearen bitartez: Ba al dakizue zer den kolektibo bat? Ba al dakizue zer den LGTB? Hizki bakoitzaren esanahia ezagutzen duzue? Azalpenak emateko aurkezpen baliabide bat prestatu nuen (ikus 2. eranskinean horren esteka). Egia esan, espero nuena baino gehiago zekiten gaiaren inguruan. Adibidez, transexualitatearen inguruan hitz egiterakoan, auzoko pertsona trans bat ezagutzen zutela esan zuten eta horren inguruan errespetu osoz hitz egin zuten. Bestalde, ume batek bere herrialdean (Asiako hego-ekialdean) mutil bat jo ahal dutela belarritakoak eramateagatik komentatu zigun, horren inguruan ere hitz egin genuen eta oso jarrera desegokia zela ondorioztatu zuten. Azkenik, diskriminazioen inguruan galdetu zuten, eta haiek jasandako diskriminazioen inguruan ere hitz egin zuten, besteak beste, matxismoaren eta arrazakeriaren inguruan.

Ondoren, nik sortutako bideo bat jarri nuen (<https://youtu.be/kktSdT1oI8I>), non LGTB kolektiboko hainbat pertsonok gure esperientzietatik abiatutako erantzunak eman genituen hurrengo galderei:

- Zergatik zara kolektiboaren parte?
- Noiz jakin zenuen kolektiboaren parte zinela?
- Zer da zuretzako LGTB kolektiboa?
- Nola uste duzu tratatu behar zaituela zure inguruko jendeak?
- Zer da gehien gustatzen zaizuna zutaz?

- Aurrera pausuak eman direla uste duzu kolektiboaren onarpenean?
- Zer esango zenioke LGTB izateagatik errespetatzen ez zaituen pertsona bati?

Galdera hauei erantzuteko era positibo bat bultzatzen saiatu ginen, ikasleek jasoko zuten informazioa positiboa izateko; gauza negatiboak, diskriminazioak eta hitz itsusiak kolektiboaren ardatzean ez jartzeko, eta normalizazioa eta errespetua bultzatzeko. Oso interesgarria izan zen kolektiboko pertsona eta figura ezberdinen ikuspuntua entzutea, ikasleek ikusteko kolektiboko kide guztiek ez dituztela bizipen berdinak eta aniztasun handia dagoela.

Bideoa ikusi eta gero, honen inguruan hitz egin genuen, sortzen ziren galderak edo zalantzak argitzeko, eta ikasleek gehitu nahi zutena gehitzeko aukera izan zuten. Askok gustatu zitzaion ikustea bideoa haientzako sortu zela, bideoaren amaieran eskolako ikasleak agurtu genituelako. Honekin batera, nire ustez oso garrantzitsua izan zen ikasleek ikustea LGTB kolektiboan haien erreferenteak izan daitezkeen pertsonak daudela ere, kasu honetan, abeslariak (Rosalía, Lola Indigo eta Miley Cyrus, bisexualak; Villano Antillano, emakume transexuala; eta Pablo Alboran homosexuala), aktoreak (Fernando Tejero eta Alba Flores, homosexualak), telebista aurkezle bat (Sandra Barneda, homosexuala) eta futbolari bat (Jakub Jankto, homosexuala) aukeratu ziren, ikasleek ezagutzen zituzten pertsonai famatuak zirelako eta hauek kolektiboaren parte direla ikustea interesgarria izan zitekeelako. (ikusi 3. eranskinean aurkezpenean zehar ateratako argazki bat)

Hau amaitzean, bi dinamika aurkeztu ziren. Lehenik, ikasleak taldeka antolatu ziren eta egoera batzuk planteatu ziren. Talde txikietan erabaki behar izan zuten zer egingo luketen egoera horietan eta gero amankomunean jarri zen, debate batekin hasiz. Hurrengo hauek izan ziren aurkeztutako egoerak:

- Institutu berrian neska batek lesbiana dela dio, eta eskolako ikasle popularra bera zirikatzen hasiko da. Zer egingo zenuke?
- Lagun batek bisexuala dela esaten dit, baina inori ez kontatzeko eskatzen dit. Nik uste dut zoriontsuago egongo litzatekeela jendeak jakingo balu. Zer egingo zenuke?
- Auzoko ume batek azazkalak margotu ditu. Zer irudituko litzazuke?
- Bi mutil eskutik paseatzen ikusten dituzu. Zer pentsatuko zenuke?

Ikasle guztiak egon ziren kolektiboko pertsonak babestearen alde, nahiz eta batzuk ez zirela liskarretan sartuko haiek defenditzeko esan zuten, arazoak ekiditeko. Lagun bisexualaren kasuan, berak esandakoa errespetatuko zuten. Eta azazkalak margotutako

umearen eta bi mutilen inguruan ez zutela ezer ez txarra pentsatuko adierazi zuten.

Azkenik, fitxa bat eman zitzaien (ikusi 4. eranskinean dinamikaren fitxa) non baieztapen batzuk agertzen ziren eta baieztapen horiek moralki ondo edo gaizki zeuden erantzun behar zuten. Erakargarriagoa izateko, pasillora atera ginen, ilara batean jarrita baieztapenak irakurri genituen eta alde batera edo bestera joan behar ziren, ondo edo gaizki iruditzen zitzaien erantzuteko, ondoren, bakoitzak bere iritzia partekatzeko aukera izan zuen. Dinamika mota hau gehiagotan egin izan zuten tutorearekin, beraz, horrelakoak egitera ohituta zeuden (ikusi 5. eranskinean dinamikan zehar ateratako argazki bat).

5.2.2. MUSIKA SORTZEN

Esku hartzearen bigarren jarduera abesti baten instrumentala sortzean zetzan. Horretarako, *Bandlab for Education* web orrialdeaz (<https://edu.bandlab.com>) baliatu ginen. Jarduera hau burutzeko, ordu bateko lau musika saio erabili genituen, eta ikasle bakoitzak eskolak utzitako *chromebook*-a erabili zuen. Web orrialde honetan, ikasleek erritmo ezberdinak probatu, instrumentu birtualak erabili, ahotsak grabatu eta efektuak jarri ahal izan zituzten, beste gauza batzuen artean. Gainera, hezkuntzarako prestatutako web orrialdea denez, nik irakaslearen profila sortu nuen, eta ikasleek ikasleena, beraz, nik sortutako jarduerak eta zereginak entregatzeko aukera zuten, sortutakoa partekatzea erraztuz.

Lehenengo saioan, proiektuaren hurrengo saioetan LGTB kolektiboaren inguruan hitz egiten duen abesti baten sorkuntzan ibiliko ginela esan nien, eta horretarako *Bandlab for Education* web orrialdea erabiliko genuela. Beraz, ikasle bakoitzak bere kontua sortu zuen, eta behin web orrialdearen nondik norakoak azaldu nizkienean, erritmo ezberdinak probatzen aritu ziren. Bakoitzak bere aurikularrak erabili zituen, era indibidual batean lan egiteko aukera izan zuten. Ni haiengana hurbiltzen nintzen nola egiten zuten lan ikusteko eta haien zalantzak argitzeko. Lehenengo saio honen helburua ikasle bakoitzak bi edo hiru erritmo mota sortzea izan zen.

Bigarren saioan, ikasleek, banan banan, aurreko astean sortutako erritmoetatik gehien gustatzen zitzaizkienak erakutsi zituzten, klaseko abestiaren erritmoa zein izango zen edo nolakoa izango zen erabakitzeko. Guztien proposamenak entzun eta gero, erabaki zuten *Rap* abesti bat egin nahi zutela, beraz klaseko ikasle batek sortutako erritmoa aukeratu zuten. Klase honetan zailtasun handiena ikasleek besteen lanak arretaz entzutea izan zen, haienak

erakusteko gogoia zutelako baina ez besteek egindakoa arretaz entzuteko. Azkenean lortu zen helburua, hau da, denen artean gustatzen zitzaien erritmo baten aukeraketa egitea.

Hirugarren saioan, aukeratutako erritmoari melodia sortzen hasi ginen, instrumentu birtualen bitartez. Lanean hasi baino lehen, arbela digitalean pianoaren teklen argazki bat jarri genuen, eta elkarrekin ondo geratu ahal ziren notak zein akordeak aukeratu genituen, ondoren nota horiekin lanean hasteko. Egun honetan oso ikasle gutxi etorri ziren eskolara eta ez genuen asko aurreratu. Gainera, erritmoaren lanketan nahiko motibatuak egon ziren arren, melodiarekin ez zuten motibazio hori izan, segur aski instrumentu birtualen erabilera zailagoa eta prozesu motelagoa izan zelako. Saio hau egin eta gero, musika irakasleak eta biok planifikazioan aldaketa bat egitea erabaki genuen: instrumentu birtualen melodian esku hartuko nuela.

Laugarren eta azkenengo saioan, goian esan dudan bezala, planifikazioa aldatu genuen, eta lagungarri bezala, melodia aukera ezberdinak eraman nituen, haiek egindako esperimentazio melodikoetan eta aplikazioak berak proposatzen dituen *loop*⁸ batzuen artean aukeratzeko parada izan zuten, horiek erabilita instrumentala eraikitzeke. Haiek, aukera horietatik gehien gustatzen zitzaizkienak aukeratu behar izan zituzten eta haien irizpidearen arabera abestiari forma eman. Planifikazioan egindako moldaketa honi esker, proiektua aurrera atera zen aurreikusitako denboran, eta ikasleek era demokratiko batean erabaki behar izan zuten nolakoa izango zen abestiaren instrumentalaren alderdi melodikoa (ikusi argazkiak 6. eranskinean).

5.2.3. LETRA IDAZTEN

Behin abestiaren instrumentala amaituta geneukanean, gaztelaniako bi saioetan ibili ginen abestiaren hitzak idazten. Arestian aipatu den bezala, abesti honen helburua LGTB kolektiboaren inguruan hitz egitea izan zen, errespetua eta normalizazioa transmititzeko. Honekin batera, ikasleek haien bizitzan bizi izan dituzten diskriminazioak, arrazismoa eta matxismoa besteak beste, abestian aipatzea logikoa ikusi izan zuten, errespetua aldarrikatzeko.

Letra idazteko lehenengo saioan fitxa bat eman nien bi ariketekin (ikusi 7. eranskina). Lehenengoan, 3 hitz edo ideia idatzi behar zituzten, gero *brainstorming* bat egiteko. Gehien errepikatu ziren hitzak *errespetua*, *arrazza*, *hezkontza*, *desberdintasuna*, *sentimendua* eta

⁸ *Loop*: gauza errepikakorra, kasu honetan, soinua. Amaiera hasierarekin konektatzen dena.

barkamena izan ziren. Bigarren jardueran, ateratako ideiekin bertso bat idatzi behar zuten, hurrengo adibidea izanik:

*Habla tranquilo de tus sentimientos.
Si tú estás bien, yo me pongo contento.
En Orbeago te vamos a querer,
no nos importa como quieras ser.*

Bigarren saioan, ateratako bertsoak dokumentu batean elkartu nituen (ikusi 8. eranskina), eta moldaketa batzuk egin ondoren, inprimatuta eraman nituen gelara, eta abestiaren instrumentala entzunda erabaki zuten kantaren zein zatitan abestuko zuten bertso bakoitza. Partaidetza maila oso altua izan zen eta ikasleak oso motibatuak ikusi nituen proiektuaren atal honetan. Honekin batera, abestiari izenburua jarri zioten: *RESPE TO ORBEGOZO SESSION 1*, Bizarrap produktoreak egiten dituen abestien izenburuei erreferentzia eginez (ikusi 9. eranskina). Honela geratu zen abestiaren letra:

<p><i>No importa que seas diferente. Siempre piensa con cuerpo y mente. Da igual lo que diga la gente, no eres ellos claramente. (x2)</i></p> <p><i>No insultes por la raza, ten educación, respeto, sentimiento y participación. Mejor no insultar, ten algo de mente.</i></p> <p><i>Deja que la gente sea diferente. (x5)</i></p> <p><i>Piensa un poco con la mente. Usa el respeto diariamente.</i></p> <p><i>Empieza a ser más consciente del daño que haces a la gente. (GENTE, GENTE, GENTE, GENTE) (x2)</i></p>	<p><i>No importa tu color de piel ni tu raza, menos tu sexo ¡Deja de ser un sin respeto! Los LGTB tienen su derecho y también “los de color” pero ¿que color? ¡negros!</i></p> <p><i>Recuerda que tu no eres perfecto siempre tendrás tu golpe de efecto</i></p> <p><i>Siempre con respeto y sentimiento. Se libre y ponte contento. Nosotros te vamos a querer, no nos importa como quieras ser. (SER, SER, SER, SER)</i></p>
--	--

5.2.4. GRABATZEN

Behin abestia idatzita zegoenean, ikasleen ahotsak grabatu ziren. Horretarako, fakultatean mikrofonoa eskatu ondoren, eskolan estudio txiki bat muntatu zen (ikusi 10. eranskina). Musika irakasleak klasea ematen zuen bitartean ikasleei estudiora binaka gerturatzeko eskatu zitzairen, eta bakoitzaren zatia pare bat aldiz grabatu ondoren gehien gustatu zitzaiena aukeratu egin zen. Gainera, zati txiki batzuk talde osoak batera grabatu

zituen (ikus 11. eranskinean grabazioetako argazkiak). Honekin batera, ahotsei *autotunea*⁹ jartzeko aukera eman zitzaion, ikasle batek eskatu zuelako. Izan ere, haiek entzuten duten musikan asko erabiltzen den baliabidea denez, proiektua erakargarriagoa egin zuen. (entzun 12. eranskinean ikasleek sortutako abestia).

5.2.5. IRRATIAN EBALUATZEN: EMAITZAK JASOTZEN

Proiektu osoa ebaluatzeko eta eskolan irrati saioak egiten zituztela aprobetxatuz, ikasleei elkarrizketa bat egin zitzaion gaztelaniako saio batean. 12 ikasle zirenez, 5 bosgarren mailakoak eta 7 seigarren mailakoak, klaseko tutoreak eta biok erabaki genuen ikasleak kurtsoka elkarrizketatzea (ikus 13. eranskinean irratsaioaren argazkia). Alde batetik, ikasle gutxiagorekin errazagoa izango zelako elkarrizketa sakonagoa burutzea, eta bestetik, bosgarren mailakoak lotsatu egiten zirelako seigarren mailakoekin horrelako jarduerak egiterakoan. Ikasleen parte hartzea, orokorrean, oso altua izan zen eta esango nuke oso erabaki ona izan zela 5. eta 6. mailak banatzea elkarrizketa egiteko, gehiago sakondu zutelako haien erantzunetan.

Egindako ebaluazioaren harira, orokorrean, proiektua asko gustatu zitzaie, talde bezala oso ondo egin zutela lan eta haien artean laguntza eta babesa eman zutela esan zuten. Etorrizunean, horrelako beste proiekturen bat egitea gustatuko litzaie, oso ondo pasa izan zutelako eta musika egiteko gai direla ikusi zutelako. Proiektuaren alderdi zailena, gehientzat, abestiaren instrumentalaren alde melodikoa sortzea eta eraikitzea izan zen, eta errazena eta gehien disfrutatu izan zutena, ordea, grabaketa. LGTB kolektiboaren inguruan jaso zituzten ideia nagusiak mundu guztia errespetatu behar dela, eta inori ez zaiola inporta behar ondokoak dituen gustuak zeintzuk diren izan ziren (ikus 14. eranskinean egindako galderak eta jasotako erantzunak).

Proiektuaren planifikazioarekin amaitu ondoren, 2023ko maiatzaren 3an, 3. zikloko ikasleekin Leioako Euskal Herriko Unibertsitatara hurbildu ginen ODS Irratiko *Gizarte Hezkuntza Plazara* saioan elkarrizketa bat egiteko. Elkarrizketa nik moderatu nuen ikasleei galderak botatzen, jendeak ikasleek egindako proiektuaren prozesua, zailtasunak, alderdi positiboak, negatiboak eta haien iritzia entzuteko. Oso aukera ona izan zen umeek egindako lana balorean jartzeko eta sortutako abestia eta horren mezua eskolatik kanpo entzunarazteko. Oso ondo irten zen, eta ikasleak oso pozik egon ziren nahiz eta hasieran lotsaturik egon. Irrati

⁹ *Autotune*: audio prozesatzailea, afinazioa zuzentzeko erabilia.

saioa zuzenean entzun eta ikusi ahal zenez, eskolatik jarraitu egin zuten, gainontzeko ikasleek ikusteko eskolako nagusiek egindako lana (ikusi 15. eranskina).

Azkenik, proiektuaren prozesuan egon ziren irakasleei, 3. zikloko tutoreari eta musika irakasleari, hain zuzen, elkarrizketa bat egin nien haien iritzia eta hausnarketa jasotzeko. Proiektuaren ebaluazioak beste ikuspegi bat izan zezan (ikusi 16. eranskina).

Elkarrizketatutako irakasleek (musika irakaslea eta 3. zikloko tutorea) egindako proiektua goraiatu zuten, honen bidez haien ikasleek hainbat arlo lantzeko aukera izan zutelako. Musika irakasleak proiektu hasieran hain motibatuta ikusi ninduen, berak ere proiektuarekiko motibazioa eskuratu zuela aipatu zuen, eta hein batean, nire inplikazioak eta aurrez egindako planifikazioak proiektuaren arrakasta eragin zuela. Biek esan zuten, haien aburuz, ikasleek euren buruengan konfiantza eskuratu zutela egindako lanaren bidez eta garrantzitsuak sentitu zirela proiektua egiten ari ziren bitartean sorkuntzaren protagonistak izan zirelako. Talde bezala ere, batera lanean aritzen ikasi zutela eta klaseko giroa hobetzeko baliagarria izan zela aipatu zuten, besteak beste, elkar hobeto ezagutzeko aukera izan zutelako haien bizipenak partekatzerakoan eta erabakiak hartzerakoan adostasun batera heldu behar zirenean. Proiektuaren momenturik motibagarriena ikasleentzat, musika irakaslearen ustez, ahotsak grabatzea izan zen. Bere hitzetan, “ahotsak grabatu zituztenean oso motibatuak zeuden, irrikan zeuden zuk muntatutako estudio txiki horretara joateko, eta etengabe galdetzen zuten ea noiz izango zen haien txanda, eta hori lortzea ez da batere erraza.”

Elkarrizketari amaiera emateko, tutoreak azpimarratu zuen proiektu honi esker ikasleek ikuspegi kritikoa sustatzeko aukera izan zutela, batez ere letra eratzekoan, eta etorkizunean entzungo dituzten abestien letrak era sakonago batean aztertzeke aukera izango dutela hemendik aurrera, “gure letrak mezu bat du, ea zein den abesti honen mezua”.

6. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honen helburuak bete izan direla esango nuke. Eskola bateko musika saioak eragile sozialtzat erabili izan direlako, musikari LGTBQ+ kolektiboaren ikuspegia emanez. 3. zikloko ikasleak abesti baten sorkuntzan murgildu izan dira, eta irakasleen gomendioak eta argibideak jarraitzearen bitartez, haien abestiaren erritmoa, instrumentala, letra eta ahotsa sortzeko gai izan dira. Sorkuntza musikal honen garapenean, parte-hartze aktiboa sustatu egin da, haien aurrezagutzak kontuan hartuz, haien interesak

ezagutuz, eta haien galderetatik abiatutako azalpenak emanez. Esperimentatzeko aukera izan dute, eta gainera, amaierako produktua lortu ahal izateko, talde lanean eta era demokratiko batean egin dute lan.

Musika irakasleek, batzuetan, ez dute jakin izan nola lortu ikasleak musikarekin konektatzea, musika saioak teoria musikalean eta musikaren historian oinarritu izan dituztelako (Regelski, 2009). Baina gero, ikasleei, musika entzutea asko gustatzen zaie, beraz, proiektu honen bidez, ikusi ahal izan da ikasleek interesa dutela musikarekiko, eta askotan, arazoa ez dela musika ikasgaiaren existentzia, baizik eta honen inplementazioa. Ikasleei sortzeko eta esperimentatzeko aukera ematen zaienean, motibazioa eta interesa piztu egiten dira. Haien iritziak eta gustuak jasotzea, teknologia erabiltzea eta zailtasunak egon direnean irtenbideak bilatzen jakitea izan dira ere proiektu honen arrakastaren laguntzaileak (Romero-Cardona, 2004), musika eskolatik kanpoko gertaerekin lotzearekin batera (Hemsey de Gainza, 2014). “[...] ikaskuntza esanguratsu bat lortzeko, ezinbestekoa da ikasleen interesak, beharrak, bizipenak eta aurrezagutzak kontuan hartzea” (Sánchez Cunill, 1998, 233. or.).¹⁰ Honi esker, ikasleek musika egiteko gaitasuna dutela ikusi dute eta horretaz disfrutatu dute.

LGTBIQ+ kolektiboaren gaia eskolan lantzea ezinbestekoa da, duela urte gutxi batzuk kolektiboaren eskubideak ez zirelako gaur egun daudenak (Carranza López, 2011), eta atzera pausoak ematea ez da aukera bat, haien eskubideak bermatu nahi badira gutxienez. Eta hor eskolak paper garrantzitsua jokatzen du. Eskolak bermatu dezakeelako ikasleen etxean landu ez daitekeen inklusioa, azken finean, gurasoek influentzia handia dutelako haien seme-alabengan. Shafferrek (2009) bere liburuan erreferentziatutako Banduraren (1992) ikaskuntza soziokognitiboaren teoriaren aburuz, haurrek gutxiengo taldeekiko jarrera negatiboak eskuratu ahal dituzte haien gurasoengan horrelako jarrerak ikusi eta gero. Eskolan, adibidez, abestiaren letra idazten hasiko ginean, ikasle batek esan zuen etxean esan ziotela ezin zuela LGTB kolektiboaren inguruko jarduerarik egin. Gurasoek pertsona talde bat era horretan ukatzen dutenean, ziur asko haien seme-alabek berdina sentitu eta adieraziko dute, eta norbaitek hori aldatzeko gaitasuna badu, eskola da, eta informazioa zabaltzearen bitartez lor dezake. Proiektu honetan parte hartu duten ikasleek, errespetua bermatzearen

¹⁰ “[...] se relacionan con los intereses, necesidades y experiencias de alumnos y alumnos considerando sus conocimientos previos, para permitir de esta forma, un aprendizaje significativo.” (Sánchez Cunill, 1998, p. 233.)

garrantziaren mezua jaso eta bizi izan dute, lan honetan babestu izan den bezala, musika indar bat da jendarte-bizitzan, eta kontzientzia eta jendartearen egitura eraikitzekeo tresna da (López Castilla, 2013).

Gauza berdina gertatzen da normalean beste gai sozial batzuekin, besteak beste, matxismoarekin eta arrazakeriarekin. Eskolako testuinguruan aipatu den bezala, eskola honetako ikasle gehienak etorkinak, familia etorkinekoak edo ijitoak zirenez, arrazismoaren inguruan bazituzten gauza asko esateko. Hori jakinda, haien abestiaren letra idazten hasi zirenean, LGTB kolektiboaren egoera azkar lotu ahal izan zuten haiek jasandako arrazismoarekin edo matxismoarekin, eta haien bizipenak kontatu eta gaiarekin lotu ahal izan zituzten. Honi esker, ondorioztatu nuen ikasleen ahotsa entzutea eta proposatzen diren proiektuak haien bizipenekin lotzea ezinbestekoa dela, haien interesa, parte-hartzeko gogoak eta gauzak ulertzeko gaitasuna askoz handiagoa delako, ikasleen tutoreak proiektuaren amaieran emandako elkarrizketan adierazi zuen modura.

Gutxitan gertatzen den arren, musika, proiektuak aurrera eramateko ikasgai egokia izan daiteke (Gonzalez-Martín eta Valls, 2018), musikak, bai ikasleen bizitzan, bai gizartean, garrantzi handia duelako. Baina legeak, eskolan, denbora murriztua uzten dio musikari, eta hau da musika irakasleen kezka eta kexa (Vaamonde et al., 2021); horregatik ere, garrantzitsua izan da eskolaren inplikazioari esker, proiektua beste ikasgai batekin (gaztelania) lotu izana. Era honetan, ikasleek ikusi dutelako landutako gaia garrantzitsua dela eta elkarlanean aritzea ezinbestekoa dela baloreak, aniztasuna eta errespetua bultzatzeko, bai haien artean, bai irakasleen artean.

Azkenik, asmo handiko proiektu bat egiterakoan, planifikazio on bat egin behar dela ondorioztatu dut, ikasleek sumatzen dutelako proiektu bat ondo antolatuta dagoenean, eta egiten dena jarraipen bat duenean, musika irakasleak proiektuaren amaieran emandako elkarrizketan adierazi zuen modura. Bestalde, gauzak zailak direla dirudien arren, gure ikasleengan konfiantza jartzea oso garrantzitsua da, nahiz eta haiek haien buruengan ez sinistu, gauza asko eta oso interesgarriak egiteko gai direlako. Proiektu hau izan da horren baieztapena, errespetua eskatzeko abesti bat goitik behera eraikitzekeo gai izan dira, bidea erraza izan ez den arren. Eta haien mezua transmititu egin dute, eskolan, etxean, irradian, eta garrantzitsuena, haien barnean.

7. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

Gradu Amaierako Lan hau aurrera eramaterakoan, etika profesionalaren zein datuen babesaren prozedurak mantendu dira momentu guztietan. Ikasleen pribatutasuna bermatzeko, irudiak erabiltzerakoan, ez dira haien aurpegiak agertu, argazkiak ateratzerakoan ekidin delako edo edizioaren bitartez estali egin direlako. Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko jarraibideak aplikatu egin dira ere bai.

Proiektuan era aske eta autonomo batean egin dute lan, eta Giza Eskubideak errespetatu dira momentu oro, *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*-n jasotzen diren bezala. Eta proiektuan zehar lengoia inklusiboa erabili da, generoaren tratamendua, sexu-aniztasuna, kultura-aniztasuna eta dibertsitate funtzionala (desgaitasuna) duten pertsonak kontuan izanik, eta arreta berezia eskainiz kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak.

3. zikloko tutoreak, musika irakasleak eta eskolako zuzendariak egindakoaren berri izan dute proiektuaren alderdi guztietan zehar, eta egin beharrekoarekin ados zeudela baieztatu da aurrera pausuak eman baino lehen. Azkenik, sortutako kantaren grabaketa eskolaren esku geratu da, eta ez da Gradu Amaierako Lan honekin zerikusirik ez duen inolako testuinguruetan erabilia izango.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alcázar, A. (2010). La pedagogía de la creación musical, otro enfoque de la educación musical. *Eufonía*, 49(1), 81-92 or.
- Alías, M. (2021b, 29 junio). El Gobierno aprueba la 'ley trans' que permite cambiar de género en 4 meses y desde los 14 años. *Vozpópuli*. <https://www.vozpopuli.com/espana/ley-trans-genero.html>
- Ballester-Arnal, R. (2020). Diversidad sexual: La triste historia de una feliz realidad. *Informació Psicológica*, 120, 2-19 or. <https://doi.org/10.14635/IPSIC.2020.120.7>
- Bonet, A. A. (2016). Epistemologías del sur y luchas LGTB: confluencias y desafíos. *Nómadas. Critical Journal of Social and Juridical Sciences*, 47(1).
- Carr, W. y Kemmis, S. (1988). *Teoría crítica de la enseñanza: la investigación-acción en la formación del profesorado*. Ediciones Martínez Roca.
- Carranza López, R. (2011). *Evolución histórica del colectivo LGTB: de las leyes represivas a la aprobación de la ley 13/2005, de 1 de julio*. (Trabajo de Fin de Máster). Universidad de Salamanca. Hemen eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10366/101362>
- Díaz Mohedo, M. T., (2005). La perspectiva de género en la formación del profesorado de música. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 3(1), 570-577 or.
- Fernández Jiménez, A. y Jorquera Jaramillo, M. C. (2017). El sentido de la educación musical en una educación concebida como motor de la economía del conocimiento: una propuesta de marco filosófico. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 14, 95-107. <https://doi.org/10.5209/RECIEM.54834>
- Gillanders, C. y Candisano, J. A. (2011). Métodos y modelos en educación musical. *Música y educación*, 24(87), 62-72 or.
- González Martín, C. y Valls, A. (2018). Los proyectos de trabajo en el área de música: una metodología de enseñanza-aprendizaje para afrontar los retos de la sociedad del siglo XXI. *Revista Electrónica Complutense de Investigación en Educación Musical*, 15, 39-60 or. <http://dx.doi.org/10.5209/RECIEM.56849>
- Hemsey De Gainza, V. (2014). Educación musical siglo XXI: problemáticas contemporáneas. *Revista da ABEM*, 19(25) 11-18 or.
- Huerta, R. (2021). Museari, Educar en Arte LGTB para Superar la Homofobia y la Transfobia. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social (RIEJS)*, 10(2), 43-58 or. <https://doi.org/10.15366/riejs2021.10.2.003>
- Jiménez, R. M. M. (2018). Transeducar: arte, docencia y derechos LGTB. *Pulso: revista de educación*, (41), 345-347 or.
- López Castilla, T. (2013). Entre platos anda el baile. Una revisión crítica de la construcción de la identidad de género en la historia de la música dance. *Musiker*, (20), 255-274 or.
- Lorenzo Quiles, O. (2003). Educación musical reglada en la enseñanza general española: 1939-2002. *Tavira. Revista Electrónica De Formación De Profesorado En Comunicación Lingüística Y Literaria*, (19), 13-34 or.
- Moliner Miravet, L., Cabedo Más, A. y Gómez Sánchez, E. (2022). Aprendizaje servicio y educación musical: nuevos horizontes formativos para una ciudadanía comprometida.

Utopía y praxis latinoamericana, 27(96), 1-9 or.
<http://doi.org/10.5281/zenodo.5790347>

- Morillo, C. C. (2022, 30 junio). Así han evolucionado las leyes LGTBI en España: desde que el colectivo era considerado “peligroso” hasta la protección de sus derechos. *Newtral*. <https://www.newtral.es/leyes-lgtbi-espana-derechos/20220620/>
- Regelski, T. A. (2009). La música y la educación musical: Teoría y práctica para “marcar una diferencia”. In D.K. Lines (konp.), *La educación musical para el nuevo milenio*, (21-47 or.). Morata
- Rey Gaona, A. (2021). *Aún no lo cuentas: proyecto y diseño de videoclip*. (Trabajo de Fin de Grado). Universidad de Sevilla. Hemen eskuragarri: <https://idus.us.es/handle/11441/126571>
- Romero Carmona, J. B. (2004). Las nuevas tecnologías y la expresión musical, otros lenguajes en la educación. *Comunicar: Revista Científica de Comunicación y Educación*, 12(23), 25-30 or. <https://doi.org/10.3916/C23-2004-05>
- Rupp, L. J. (2022). Teaching LGBTQ History and Heritage. *LGBTQ America: A Theme Study of Lesbian, Gay, Bisexual, Transgender, and Queer History*. UC Santa Barbara. <https://escholarship.org/uc/item/1sd7t6s8>
- Sánchez Cunill, C. (1998). La interdisciplinariedad y la educación musical. *Contextos: Estudios de Humanidades y Ciencias Sociales*, (1), 227-233 or.
- Seba, J. A. (2009). *Gay and Lesbian Role Models*. Simon and Schuster.
- Settanni, S. V. (2013). Sexualidades politizadas y medios de comunicación: la Marcha del Orgullo LGBT de Buenos Aires. *Avatares de la Comunicación y la Cultura*, (5).
- Shaffer, D. R. (2009). *Desarrollo social y de la personalidad*. Thomson.
- Suanes, M. N. (2009). Autoconocimiento y autoestima. *Temas para la educación*, 3(5), 1-9 or.
- Vaamonde Sánchez, R., Arriaga Sanz, C. y Cabedo Mas, A. (2021). Estrategias para la transformación de conflictos con el tiempo en el aula de música: Un estudio desde la voz de los docentes. *Revista Internacional de Educación Musical*, 9(1), 63-72 or. <https://doi.org/10.1177/230748412111046715>